Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 12a.

Vitoria-Gasteiz a 12 de enero de 2016.

**BILDU DIRA**

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Iñigo Ansola Kareaga jn. eta Zarauzko Alkate Udalburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

**SE REUNEN**

El Sr. D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Xabier Txurruka Fernández, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zarautz.

**ESKU HARTU DUTE**

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bi aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako

**INTERVIENEN**

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

**HONAKOA AZALTZEN DUTE**

**LEHENENGOA.-** Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde

**EXPONEN**

**PRIMERO.-** Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, *dentro* de su

eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen esklusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorrekotzat jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAEra eskualdatu ziren, besteak beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez dionean eta legez Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen ez direnean.

**BIGARRENA.-** Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumen-gaietako eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri

territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

**SEGUNDO.-** Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras

dagokio, besteak beste, Estatuko Administrazioak transferitu, eskuordetzan eman edo Agentziaren esku utzitako funtzioak gauzatzea.

funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

**HIRUGARRENA.**- Uraren Euskal Agentziak eta Zarauzko Udalak 2009ko otsailaren 9an lankidetza hitzarmen bat sinatu zutela, «Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio Proiektua» delakorako obrak kontratatzeko eta egikaritzeko. Obra horiek uholdeetatik babesteko eta industrialde horretan ibaiak egiten duen ibilbide guztian zehar ertzak berreskuratzeko izango dira.

**TERCERO.**- Que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Zarautz suscribieron el 9 de febrero de 2009 un convenio de colaboración para la contratación y ejecución de las obras correspondientes al "Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri", en lo que afectaba a la prevención de inundaciones y recuperación de márgenes en todo su recorrido y extensión por el sector.

**LAUGARRENA.**- Errotaberri industrialdea garatzeko atzerapenak izan direnez, aurreikusitako obrak ezin izan direla aurreratu.

**CUARTO.**- Que debido a retrasos en el desarrollo del citado Sector Industrial de Errotaberri no se ha podido avanzar en la ejecución de las obras previstas.

[redacted]

**BOSGARRENA.**- Industrialde horretako instalazioen uholde-arriskua murrizteko zein gune horretako ibaiaren zati bat birgaitzeko, jatorrizko urbanizazio-proiektuan jasota dauden uholdeak prebenitzeko jarduketak eta birgaitze-jarduketak aurreratzea erabaki duela Uraren Euskal Agentziak; horretarako, proiektu horren separata bat idatziko du.

**QUINTO.**- Que, con el fin de disminuir el alto riesgo de inundabilidad en el que se encuentran las instalaciones actualmente radicadas en dicho Sector, así como restaurar un tramo de río en este momento en cobertura en la zona, la Agencia Vasca del Agua ha decidido adelantar las actuaciones de prevención de inundaciones y restauración que se contemplaban en el proyecto de urbanización original, mediante la redacción de una separata del mismo.

[redacted]

**SEIGARRENA.-** Zarauzko Udalak, bestalde, «Zarauzko Iñurritza ibaiaren ingurumen-hobekuntzarako aurreproiektua» garatu duela. Aipatutako ibaiari dagokionez, Errotaberri sektoretik beherako urak ingurumenaren aldetik berroneratzea jaso da aurreproiektu horretan. Hiru fasetan egingo da berroneratze hori, ibaia herriaren barnean tartetan zatituta.

**SEXTO.-** Que, por su parte, el Ayuntamiento de Zarautz ha desarrollado el "Anteproyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz", que contempla la recuperación ambiental del citado río, aguas abajo del sector Errotaberri, en tres fases, mediante su división en tramos dentro del municipio.

**ZAZPIGARRENA.-** Ezinezkoa izan denez 2009. urteko hitzarmenean adostutako jarduketak gauzatzea, bi administrazioek ulertzen dute eraginkorragoa izango litzatekeela inbertsio-ahalegin hori dokumentu honetako seigarren eta zazpigarren ataletako jarduketekin zerikusia duten jarduketetara bideratzea; izan ere, aipatutako jarduketok bideragarriak dira gaur egun.

**SÉPTIMO.-** Que a la vista de la imposibilidad de llevar a cabo las actuaciones comprometidas en el convenio de 2009, tal y como estaban previstas, ambas Administraciones entienden que resultaría más eficaz dedicar ese esfuerzo inversor a las actuaciones relacionadas en los exponendos sexto y séptimo del presente documento, cuya ejecución sí es viable en la actualidad.

**ZORTZIGARRENA.-** Horrenbestez, Uraren Euskal Agentziak eta Zarauzko Udalak LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute, jarraian adierazitako jarduerak egite aldera. Hona hemen hitzarmenaren

**OCTAVO.-** Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, y el Ayuntamiento de Zarautz proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN para las actuaciones que se indican, con arreglo a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLÁUSULAS**

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.**

**PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO**

[redacted] Hitzarmen honen helburua da hitzarmen

El presente convenio tiene por objeto

honen bigarren klausulan jasotako obrak elkarrekin finantzatu eta gauzatzeko Uraren Euskal Agentziak eta Zarauzko Udalak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

**BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.**

Gauzatu beharreko jarduerak, ondorengo klausuletan ezarrita bezala bete beharrekoak, honako hauek dira:

**A.**- Olaga eta Iñurritza ibaietako jarduketak, «Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio Proiektuan» definituak. Proiektu hori 2012ko irailaren 28an onartu zuen Udalak. Bitan banatu dira:

1. Urbanizazio-proiektuaren 1. zk.ko separata, gehienbat, uholdeetatik babesteko eta Olaga ibaiaren ertzak leheneratzeko obrak izango dira.
2. Urbanizazio-proiektuaren 2. zk.ko separata, gehienbat, Errotaberri sektoreko iparraldeko gunean Iñurritza ibaia desbideratzeko obrak izango dira.

[redacted]

**B.**- «Zarauzko Iñurritza ibaiaren ingurumen-hobekuntzarako proiektua», Frantseskua igarobidearen eta Zubiaurre Zaharreko

regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Zarautz se comprometen a colaborar en la financiación y ejecución de las obras recogidas en la cláusula segunda del presente convenio.

**SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.**

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las correspondientes a los proyectos:

**A.**- Actuaciones en los ríos Olaga e Iñurritza definidas en el "Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri" aprobado por el Ayuntamiento el 28 de septiembre de 2012. Se desglosan en dos:

1. "Separata nº1 del proyecto de urbanización que consiste fundamentalmente en las obras de defensa contra inundaciones y recuperación de márgenes del río Olaga.
2. "Separata nº2 del proyecto de urbanización que consiste fundamentalmente en el desvío del río Iñurritza en la zona norte del sector Errotaberri .

**B.**- "Proyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz", que comprende el tramo del río comprendido entre el

zubien artean dagoen ibaiaren zatia sartzen da proiektu honetan. Hala, egungo bideratze-hormen zati bat eraitsiko eta/edo ordeztuko da eta ibaiertza zein ibilguaren hondoa naturalizatuko dira. Hiru fasetan egingo da:

1. 1. fasea: Frantzeskua igarobidearen eta AP-8 autobidearen azpiko kaxaren arteko bide-tartea.
2. 2. fasea: AP-8aren eta Itxasmendi pasabidearen arteko bide-tartea.
3. 3. fasea: Itxasmendi pasabidearen eta Zubiaurre Zahar zubietan lehenengoaren arteko bide-tartea.

denominado paso de Frantseskua y los puentes de Zubiaurre Zahar y consiste en la demolición y/o sustitución de parte de los muros de encauzamiento existentes y la naturalización de las riberas y lecho del cauce. Se desglosa en tres fases:

1. Fase 1: tramo entre el paso de Frantzeskua y el cajón bajo la autopista AP-8.
2. Fase 2: tramo entre el de la AP-8 y la pasarela de Itxasmendi.
3. Fase 3: tramo entre la pasarela de Itxasmendi y el primero de los puentes de Zubiaurre Zahar.

**HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK**

Honako hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du Uraren Euskal Agentziak:

**A.-** Egikaritu beharreko proiektu hauek indarrean dagoen legeriari jarraikiz behar bezala gainbegiratuta eta onartuta aurkeztea:

1. «Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio Proiektuaren 1. zk.ko separata».
2. «Zarauzko Iñurritza ibaiaren ingurumen-hobekuntzarako Proiektua» bere hiru faseetan: 1, 2 eta 3.

**TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

La Agencia Vasca del Agua, se compromete a:

**A.-** Aportar a su cargo conforme a la legislación vigente, supervisar debidamente y aprobar los siguientes proyectos de ejecución:

1. La "Separata nº1 del Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri".
2. El Proyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz" en sus tres Fases: 1, 2 y 3.

**B.**- Hurrengo proiektuetan jasotako lanak kontratatzea:

1. «Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio Proiektuaren 1. zk.ko separata».
2. «Zarauzko Iñurritza ibaiaren ingurumen-hobekuntzarako Proiektua». 3 Fasea.

**B.**- Contratar las obras incluidas en los siguientes proyectos:

1. "Separata nº1 del Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri".
2. "Proyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz. Fase 3."

**C.**- Obra horiek zuzentzea eta ikuskaritza teknikoaz arduratzea.

**C.**- Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

**D.**- Lan horiek kontratatzeko benetako kostuaren %100 finantzatu eta ordaintzea, hitzarmen honetan aurreikusitakoari jarraiki.

**D.**- Financiar y abonar el 100% del coste efectivo de la contratación de dichas obras en los términos previstos en el presente convenio.

Uraren Euskal Agentziak, gehienez ere, LAU MILIOI, LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA, HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO, BERROGEITA HAMABI ZENTIMOKO (4.454.388,52 €) ekarpena egiteko konpromisoa hartu du. Zenbateko hori 2016. urterako 10.000 euroko ordainketa kreditu bati egokituko zaio, 2017. urterako 400.000 euroko kreditu bati eta 2018. urterako 4.044.388,52 euroko kreditu bati, Agentziaren aurrekontutik finantzatuz.

El importe previsto como aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua es de CUATRO MILLONES CUATROCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL TRESCIENTOS OCHENTA Y OCHO EUROS CON CINCUENTA Y DOS CÉNTIMOS DE EURO (4.454.388,52 €), correspondientes a un crédito de pago para el ejercicio de 2016 de 10.000 €, un crédito de compromiso para el 2017 por importe de 400.000 €, y un crédito de compromiso para el 2018 de 4.044.388,52 €, que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia.

**LAUGARRENA.- ZARAUZKO UDALAREN BETEBEHARRAK.**

Zarauzko Udalak betebehar hauek ditu:

**A.-** 2012ko irailaren 28an onartutako Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio Proiektuaren 2. zk.ko separata aurkeztea. Udalak Uraren Euskal Agentzian aurkeztuko du separata, eta erakunde horrek babeste-neurri eta neurri zuzentzaile osagarriak erantsi ahal izango dizkie urbanizazio-proiektuaren ingurumen-inpaktuarena adierazpenean (Ingurumen sailburuordearen 2011ko ekainaren 1eko ebazpena) ezarritakoei.

**B.-** Hurrengo proiektuetan jasotako lanak kontratatzea:

1. «Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio Proiektuaren 2. zk.ko separata».
2. «Zarauzko Iñurritza ibaiaren ingurumen-hobekuntzarako Proiektua». 1 eta 2 Faseak.

**C.-** B atalean sartutako obrak zuzentzea eta ikuskaritza teknikoaz arduratzea

**D.-** B atalean sartutako obren egiazko kostuaren %100 finantzatu eta ordaintzea, hitzarmen honetan aurreikusitakoari jarraiki.

**CUARTA.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ.**

El Ayuntamiento de Zarautz se obliga a:

**A.-** Aportar a su cargo la Separata nº 2 del Proyecto de Urbanización del sector industrial Errotaberri aprobado el 28 de septiembre de 2012. El Ayuntamiento presentará la separata en la Agencia Vasca del Agua, la cual podrá establecer medidas protectoras y correctoras complementarias a las ya establecidas en la declaración de impacto ambiental del proyecto de urbanización (resolución de 1 de junio de 2011, de la Viceconsejera de medio Ambiente)

**B.-** Contratar las obras incluidas en los siguientes proyectos:

1. "Separata nº2 del Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri".
2. "Proyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz. Fases 1 y 2.".

**C.-** Dirigir e inspeccionar técnicamente las obras incluidas en el apartado B.

**D.-** Financiar y abonar el 100% del coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en el apartado B en los términos previstos en el presente convenio.

Zarauzko udalak **ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO, HEMERETZI ZENTIMOKO** ekarpena **(778.549,19 €)**, BEZ barne, egiteko konpromisoa hartu du. Zenbateko hori 2016. urterako 10.000 euroko ordainketa kreditu bati egokituko zaio, 2017. urterako 368.549,19 euroko kreditu bati eta 2018. urterako 400.000 euroko kreditu bati, Udalaren aurrekontutik finantzatuz.

El importe previsto como aportación del Ayuntamiento de Zarautz es de ***SETECIENTOS SETENTA Y OCHO MIL QUINIENTOS CUARENTA Y NUEVE EUROS Y DIECINUEVE CÉNTIMOS (778.549,19€)***, IVA incluido correspondientes a un crédito de pago para el ejercicio de 2016 de 10.000 €, un crédito de compromiso para el 2017 por importe de 368.549,19 €, y un crédito de compromiso para el 2018 de 400.000 €, que se financiarán con cargo a sus recursos presupuestarios

**E.-** Hirugarren klausularen B puntuan adierazitako obrak egiteko behar diren lurrak, aldi baterako nahiz behin betiko eskuratzea.

**E.-** Poner a disposición de la Agencia, los terrenos precisos, de modo temporal o definitivo, para la ejecución de las obras referidas en la cláusula tercera B.

**F.-** Zerbitzuren bat, proiektuaren barnean kontuan hartu ez dena, kaltetu bada, berriz ere jartzea, eta hitzarmen honetako obra guztiak kontratatu ahal izateko behar diren litzentziak eta baimenak eskuratzea eta aldez aurreko gainerako izapide guztiak egitea.

**F.-** Reponer los servicios afectados no contemplados en los proyectos, así como obtener las licencias, autorizaciones y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de todas actuaciones previstas en el presente convenio.

**G.-** Era berean, bere kudeaketa-arloari dagokionez, hondakin-uren saneamendu eta arazketa egokia bermatzeko konpromisoa hartu du, obrak egiten diren bitartean trataturiko ur horien emaria

**G.-** Asimismo, en su ámbito de gestión, se compromete a garantizar el adecuado saneamiento y depuración de aguas residuales a la población en caso de que por la ejecución de las obras sea necesario

murriztea beharrezkoa bada. Horretarako, behar diren izapideak eta jarduketak egin beharko ditu eta horien guztien zenbateko osoa bere gain hartu beharko du.

disminuir el caudal tratado. A tal efecto, deberá llevar a cabo los trámites y actuaciones precisos, así como asumir su importe íntegro.

**H.-** Uraren Euskal Agentziatik kontratatutako obrak hartzea (erakunde horrek amaitu eta hartu ostean). Obra horiek toki-jabetzakoak izango dira eta Zarauzko Udalak horiek behar bezala kudeatu eta mantendu beharko ditu; eta halaber, aurrekontu-aurreikuspenak betetzeko eta xede horretarako beharrezkoak diren gainerako neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.

**H.-** Recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras contratadas por ésta, una vez terminadas y recibidas por ella, obras que quedarán en propiedad local, obligándose el Ayuntamiento de Zarautz, a su gestión y mantenimiento adecuados, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

**I.-** Aldian-aldian mantentze-lanak eta garbiketa-lanak egitea, entregatuko diren azpiegitura hidraulikoen hustubidearen gaitasuna kontserba dadin.

**I.-** Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las infraestructuras hidráulicas que se entregan.

**BOSGARRENA.- OBRAK KONTRATATU, ZUZENDU ETA IKUSKATZEA.**

**QUINTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN E INSPECCIÓN DE LAS OBRAS.**

1.-Uraren Euskal Agentziak, hitzarmen honetako 3.B klausularen arabera, bere gain hartzen ditu «Errotaberri Industrialdearen Urbanizazio-proiektuaren 1 zk.ko separatako" obrak eta "Zarauzko Iñurritza ibaiaren ingurumen-hobekuntzarako proiektuko» obrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari

1- La Agencia Vasca del Agua, conforme a la cláusula 3.B del presente convenio, se hace cargo de la contratación de las obras de la "Separata nº1 del Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri" y del "Proyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz. Fase 3.", según el régimen de contratación

aplika dakiokeen kontratazio-araudiaren arabera.

aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Egin beharreko obren zuzendaritza eta ikuskaritza teknikoa Uraren Euskal Agentziak egingo du. Orobat, ziurtapenen onarpena ere Agentziak egingo du

2- Corresponderá a la Agencia Vasca del Agua la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar. Además corresponderá a la citada Agencia la aprobación de las certificaciones.

3.- Agentziak obrak hartzen dituenean, erakunde horrek Zarauzko Udalaren eskura jarriko ditu, ondoren ustiatu eta kontserba ditzan laugarren klausulako H) eta I) letretan adierazitakoari jarraiki. Obrak udalaren esku uzteko eta udalak behar bezala zaindu eta ustiatuko dituela hitz emateko akta bat egingo da.

3.-Recibidas las obras por la Agencia, ésta las pondrá a disposición del Ayuntamiento de Zarautz para su posterior explotación y conservación conforme a lo indicado en las letras H) e I) de la cláusula cuarta. La transmisión de la posesión de las obras al ayuntamiento y su compromiso de adecuada conservación y explotación se articularán mediante un acta.

4.- Hitzarmena betearazten denean, Uraren Euskal Agentziak ez du konpromisorik ezta erantzukizunik izango Udalaren eskumenpeko ur-hondakinen saneamendua eta arazketari dagokionez.

4.- Durante la ejecución del convenio, la Agencia no asume compromiso ni responsabilidad alguna en cuanto a la obligación de saneamiento y depuración de aguas residuales que compete al Ayuntamiento.

**SEIGARRENA.- OBRAK FINANTZATU ETA ORDAINTZEA.**

**SEXTA.- FINANCIACIÓN Y PAGO DE LAS OBRAS.**

1.- Alderdi bakoitzak bere gain hartuko du obren finantzazioa eta ordainketa, hitzarmen honetako hirugarren eta laugarren klausuletan zehaztutakoaren arabera.

1.- Cada parte asume la financiación y pago de las obras conforme se especifica en las cláusulas tercera y cuarta del presente convenio.

2.- Kontratuak izan ditzakeen gorabeherek esleipen-prezioari eragiten badiote (hala nola gehiegizko likidazioak, prezioen berrikusteak, zerga-tipoen aldaketak eta abar), edo obretan aldaketak egiten badira eta obra osagarriak edo gehigarriak egiten badira, horiek guztiak alderdi batek zein besteak finantzatuko dituzte, % 100ean, aipatutako klausulen arabera kontratatu eta egikaritu diren obretarako. Gorabehera edo kontratuko jardute horiek onartzeko, hitzarmenaren bilakaera zaintzeko batzordearen txostena ez ezik, beharrezkoa izango da, orobat, dagokion administrazio-erakundeak zein alderdiek agiri bidez ziurtatzea badutela behar bezalako kreditua, bakoitzak hitz emandako zenbatekoak finantzatzeko adinakoa; gorabehera, aldaketa edo obra osagarri edo gehigarri horiek direla-eta alderdiek hirugarren eta laugarren klausulan bere gain hartu zituzten aurrekontu-konpromisoak gainditzen badira izango dira beharrezkoak ziurtagiri horiek.

2.- Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como exceso en liquidación, revisiones de precios, modificación de tipos impositivos etc.,), así como los modificados de obra y las obras accesorias o complementarias serán financiados al 100% por cada parte para las obras cuya contratación y ejecución asume conforme a las citadas cláusulas. Para la aprobación de las citadas incidencias o actuaciones contractuales, además del informe de la comisión de seguimiento del convenio, será preceptiva la aprobación por el órgano administrativo correspondiente, así como la certificación de la existencia y de la disposición de crédito adecuado para la cobertura por cada una de las partes de los importes que se comprometen a financiar, cuando se exceda de los compromisos presupuestarios asumidos por las partes en las reiteradas cláusulas tercera y cuarta.

3.- Obrak alderdi bakoitzak ordainduko ditu, hemen ezarritakoaren arabera, bakoitzak bere gain hartutako finantza-konpromisoen mugarekin.

3.- Hasta el límite de los compromisos financieros asumidos, el pago de las obras se realizará por cada una de las partes según lo referido.

**ZAZPIGARRENA.- JARDUKETEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.**

**SÉPTIMA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.**

1.- Hitzarmen honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute. Bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi Zarauzko Udalakoak. Hitzarmena sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako eginkizun hauetarako:

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Ayuntamiento de Zarautz, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala burutzen ari direla egiaztatzeko jarraipena egitea, eta, horretarako, bi erakundeek bata bestearen informazioa izan dezaten eta elkarrenganako konpromisoak behar bezala bete ditzaten irizpide eta moduak ezartzea.

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las obras previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Lan bakoitzerako behar diren izapideak agudo egiteko oztopoak kentzen saiatzea.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Hitzarmen honen gai diren jardunak burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitu beharreko kasuetan eta seigarren klausulan jasotakoetan.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula sexta.

d) Hitzarmenak ekar ditzakeen

d) Procurar la resolución de los

interpretatzeko eta burutzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da, presidentzia eta idazkaritza txandakakoa izanik. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma . Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3. Hitzarmenak jarraipenerako batzordearentzat berariaz jasotzen ez dituen gaietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992ko Legearen II tituluko II. kapituluko kide anitzeko organoetarako araubidea bete beharko da.

3. En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.**

**NOVENA.- REGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.**

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

**DÉCIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.**

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak, eta ordutik behartuko ditu parte-hartzaileak, eta hura burutzeko jardunen kontratazioa behin betiko kitatu eta ordaindu arte iraungo du.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta el pago de la liquidación de la contratación de las obras para su ejecución.

**HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.**

**UNDÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.**

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko. Hitzarmena hautsiz gero, aldeek zehaztuko dute nola amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen ari diren obrak.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA/**
**EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

[redacted]

**IÑIGO ANSOLA KAREAGA**

**ZARAUZKO ALKATE-UDALBURUA/**
**EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ**

[redacted]

**XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ**

231.50.170

ur agentzia
agencia vasca del agua

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

| GASTU-BAIMENAREN ESKABIDEA | SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN DE GASTO |
|---|---|
| "URAREN EUSKAL AGENTZIA ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA" | "CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ" |

1.- JUSTIFICACIÓN DEL GASTO

El conveni a suscribir, incluye el compromiso de ejecución de los siguientes proyectos:

- Separata nº1 del Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Errotaberri
- Proyecto de mejora ambiental del río Iñurritza en Zarautz. Fase 3

La Agencia Vasca del Agua se ha comprometido a la financiación de estas obras que conllevarán la reducción de la inundabilidad del entorno y la recuperación ambiental del río.

2.- PRESUPUESTO

El presupuesto previsto a cargo de la Agencia Vasca del Agua asciende a la cantidad de CUATRO MILLONES CUATROCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL DOSCIENTOS NOVENTA Y TRES EUROS CON DIEZ CÉNTIMOS (4.454.293,10 €), IVA incluido.

3.- ANUALIDADES

Distribución presupuestaria prevista a cargo de la Agencia Vasca del Agua:

- Anualidad para 2015 por un importe de: 100.000,00 €
- Anualidad para 2016 por un importe de: 2.810.000,00 €
- Anualidad para 2017 por un importe de: 1.544.293,10 €

Vitoria-Gasteiz, 2015ko urtarrilaren 7a

Vitoria-Gasteiz, a 7 de enero de 2015

**SINADURA:**

Jose Maria Sanz de Galdeano Equiza
Plangintza eta Lanen zuzendaria
Director de Planificación y Obras

ur agentzia
agencia vasca del agua

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

---

Iñigo Ansola Kareaga Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak

ZIURTATZEN DUT

Uraren Euskal Agentziak hasi duen espedientean, honako kontratu honetarako: **"URAREN EUSKAL AGENTZIA ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA"**

guztizko kopurua: 4.454.293,10 € duena, honako urtekako banaketarekin:

| | | |
|---|---|---|
| 2015 | urterako | 100.000,00 € |
| 2016 | urterako | 2.810.000,00 € |
| 2017 | urterako | 1.544.293,10 € |

Badagoela haren betebeharrak betetzeko **kreditu egoki eta behar bestekoa**, Uraren Euskal Agentziaren 360 **kapital**-aurrekontuan, **23150170.**kontuari egotzita.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau egin dut.

Vitoria-Gasteiz,2015ko urtarrilaren 12a

D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua.

CERTIFICO:

Que en el expediente incoado a instancia de la Agencia Vasca del Agua, relativo al contrato que tiene por objeto: **"CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ"**

Por un importe total de 4.454.293,10 €, con las siguientes anualidades:

| | |
|---|---|
| 2015 importe de: | 100.000,00 € |
| 2016 importe de: | 2.810.000,00 € |
| 2017 importe de: | 1.544.293,10 € |

Existe **crédito adecuado y suficiente** para atender a las obligaciones del mismo en el presupuesto de **capital** 360 de la Agencia Vasca del Agua, imputable a la cuenta **23150170.**

Y para que conste y surta efecto oportuno, expido el presente certificado,

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de enero de 2015

Iñigo Ansola Kareaga
Zuzendari nagusia/ Director General